

## Xedapen Orokorrak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

#### Zk-5772

237/2000 DEKRETUA, azaroaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoan egin izan diren sindikatu hauteskundeetako prozesuetan administrazioak izan duen zeregina hasiera-hasieratik egon da hainbat segimendu eta kontrol baliabideri lotuta. Ildo horretatik, sindikatuek segimendu eta kontrol baliabide horietan izan duten parte hartze kualifikatuak indartu egin du lan-agintariak, euren eskumen-esparruan, egindako administrazio lana; eta horren ondorioz, administrazioak hauteskundeetako emaitzak baliozkotu ondoren, bere horretan onartu izan dira. Bestalde, emaitzak baliozkotzeko, hauteskunde emaitzen aktak erregistratu, gordailatu eta zabaltzea da ohiko prozedura. Gauzak horrela, esan daiteke sindikatu hauteskundeen berezko eredia dugula, eredu horren baitan erabateko garrantzia dutelarik ordezkarietarako handiena duten sindikatuek; izan ere, sindikatu horiek parte hartze aktiboa izan dute horretarako propio zabalduetako bideetan, eta horrek erabat indartu du lan-agintariak baliozkotzat egiaztatu ohi dituzten emaitzen bermea.

Segimendu eta kontrol baliabideak moldatu egin dira sindikatu hauteskundeen arloan egin diren lege aldaketetara. Baina horretarako, ezinbestekoa izan da gehiengoan duten sindikatuek izenpetu duten «Sindikatu Hauteskunderi buruzko sindikatu arteko Akordioa». Hori dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu hauteskundeen prozesuaren ezaugarri bihurtu dira gardentasuna, objetibitatea eta sinesgarritasuna. Horretatik guztiagatik, eta erkidego honetako errealitate soziala eta sindikala aintzat hartuta, irailaren 13ko 355/1994 Dekretuak Erregistro, Gordailu eta Zabalduerako Bulego Publikoaren Batzorde Aholkuemaldea sortu zuen. Batzordea kide anitzeko organoa da eta administrazioarentzat tresna lagungarria, eta batzordearen helburuak dira sindikatu hauteskundeen prozesuan zehar laguntzea eta sindikatuek parte hartzeko bide izatea.

Hala ere, hainbat arrazoi zirela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoan artean sortu gabe zegoen martxoaren 24ko 1/1995 Dekretu Legegileak onartu zuen Langileen Estatutuko 67. eta hurrengo artikuluetan aurreikusita dagoen sindikatu hauteskundeen bulego publikoa. Gauzak horrela, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko Dekre-

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

#### Nº-5772

DECRETO 237/2000, de 28 de noviembre, por el que se crea en la Comunidad Autónoma de Euskadi la Oficina Pública, su Comité y la Inspección de Elecciones Sindicales.

En la Comunidad Autónoma de Euskadi la actuación administrativa en los procesos de elecciones sindicales, desde su inicio, ha estado acompañada de una serie de mecanismos de seguimiento y control en los que la participación cualificada de las Centrales Sindicales ha venido a reforzar la actividad administrativa realizada por la Autoridad Laboral en el marco de sus competencias, de modo que los resultados de dichas elecciones no fueran cuestionados una vez que se producía la convalidación de los mismos mediante el oportuno registro, depósito y publicidad de las correspondientes Actas. Ello es así hasta el punto de que se puede hablar de un sistema propio de elecciones sindicales, dentro del que adquiere una máxima importancia la presencia activa de los Sindicatos representativos quienes, con su participación en los diversos cauces que se han habilitado al respecto, han reforzado la garantía de los resultados que la Autoridad Laboral certificaba como válidos.

Estos mecanismos que han ido adaptándose a las diversas modificaciones legislativas que se han producido en esta materia, y en los que ha sido clave el Acuerdo Intersindical sobre Elecciones Sindicales suscrito entre las Confederaciones Sindicales mayoritarias, han dotado al proceso de elecciones sindicales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de unas notas características de transparencia, objetividad y credibilidad. Esta fue la razón por la que, atendiendo a la singularidad de la realidad social y sindical de esta Comunidad, por Decreto 355/1994, de 13 de septiembre, se creó el Comité Asesor de la Oficina Pública de Registro, Depósito y Publicidad de elecciones sindicales, como órgano colegiado e instrumento coadyuvante de la Administración, con la finalidad de colaborar durante el desarrollo del proceso electoral y para servir de cauce de participación de las Centrales Sindicales.

Sin embargo, por distintas circunstancias, en esta Comunidad no había sido creada la Oficina Pública de elecciones sindicales prevista en los artículos 67 y siguientes del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, si bien sus funciones fueron atribuidas a la Dirección de Trabajo por el Decreto 384/1994, de 4 de octubre, de

tua aldatzen duen urriaren 4ko 384/1994 Dekretuak Lan Zuzendaritzari eman zizkion berez bulego publikoarenak ziren eginkizunak, eta Zuzendaritzak bere horretan bete ditu eginkizunok. Baina, orain arte egindako sindikatu hauteskundeen prozesuetan, bai Administrazioak bai sindikatuak parte har dezaten, propio sortutako segimendu eta kontrol batzordeak bildutako esperientzia ikusirik, egun ezinbestekotzat jotzen da sindikatu hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzea, hartara bulegoaren edukiak ere berriaz arautu ahal izateko.

Beraz, sindikatu hauteskundeen prozesuetan parte hartzen duten erakundeak era sistematiagoan arautuz lortu nahi da hauteskundeen prozesuetan parte hartzen duten egiturak finkatzea, hala eginez gero, jardura esparru argi eta egonkorra eratuko delako, bai administrazioaren jarduerari dagokionez bai sindikatuen jarduerari dagokionez. Azken finean, Dekretuaren asmoa da Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza oinarritzat hartuta egituratzea Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu hauteskundeen sistema, horretarako, hiru organo horietako bakoitzaren eginkizunak eta organoen arteko lotuneak zehaztuz. Bestalde, horren guztiaren xedea da prozesu horiek gero eta eraginkorragoak, objektiboagoak eta gardenagoak izatea. Zentzu horretan ordea, aipatzekoa da sindikatu hauteskundeen prozesuak hasi zirenetik Euskal Autonomia Erkidegoan martxan dagoen sindikatu hauteskundeen gaineko sindikatu arteko akordioa; izan ere, akordio horretan daude jasota Batzordean dauden sindikatuak hauteskunde prozesuetan erabiltzen dituzten prozedura arauak.

Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoaren eta lurralde bulegoen egitekoak izango dira sindikatu hauteskundeen aktak erregistratu, gordailatu eta zabaltzearekin zerikusia duten eginkizunak betetzea batetik, eginkizun horiek lan-aginteari baitagozkio berez; eta bestetik, hauteskunde prozesuarekin zerikusia duten eginkizunak betetzea, baldin eta Bulego Publikoaren edo lurralde bulegoen eskumeneko eginkizunak badira. Bestalde, Bulego Publikoaren barruan dagoen Batzordearen eginkizun garrantzitsuenak izango dira, alde batetik, kontrolatzea eta gainbegiratzea ea Sindikatuen arteko Akordioan ezarritakoa betetzen den hauteskunde prozesuetan, eta beste alde batetik, prozesu horietan azaltzen zaizkien arazo garrantzitsuenak erabakitzeke irizpideak ematea. Hirugarrenik, Ikuskaritza dago, eta Ikuskaritzaren zeregina izango da Batzordeari laguntzea hauteskundeen egokitasuna kontrolatzen. Bestalde, Ikuskaritza hauteskunde sistemaren oinarriko tresna izango da eta haren ardura zuzena izango da lantokietan egin beharreko ikuskapenak egitea. Azkenik, dekretu honi atxikita argitaratuko diren eranskinak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan sindikatu hauteskundeak egiteko erabili behar diren agirien eredu ofizialak.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak

modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional del, entonces, Departamento de Trabajo y Seguridad Social, quien las ha venido ejerciendo en su integridad. No obstante, tras la experiencia acumulada en los procesos de elecciones sindicales seguidos hasta el momento, tanto de la actuación de la Administración como de la realizada por los Comités de seguimiento y control creados «ad hoc» para la participación sindical, se considera oportuno proceder a la creación de la mencionada Oficina Pública, su Comité y la Inspección de Elecciones Sindicales, a fin de regular de forma específica sus contenidos.

Se pretende con ello consolidar las estructuras que participan en los procesos de elecciones sindicales, a través de una regulación más sistemática de las instituciones que participan en los mismos, lo que configurará un marco de actuación claro y estable, tanto en lo que corresponde a lo propio de la actividad administrativa como a la realizada por las Confederaciones Sindicales. En definitiva, se trata de articular el sistema de elecciones sindicales en la Comunidad Autónoma de Euskadi sobre la base de la Oficina Pública, su Comité y la Inspección de Elecciones Sindicales, delimitando las funciones de cada órgano y los puntos de conexión que han de establecerse entre ellos, en aras a conseguir una mayor eficacia, objetividad y transparencia en dichos procesos. A estos efectos ostenta especial relevancia el Acuerdo Intersindical sobre elecciones sindicales que viene operando en esta Comunidad desde el inicio de las mismas, en la medida en que éste recoge las normas de procedimiento sobre las que basan su actuación las Confederaciones Sindicales con presencia en el Comité.

Corresponderá a la Oficina Pública de Elecciones Sindicales, y a las Oficinas Territoriales en su ámbito, el ejercicio de todas las funciones inherentes a la Autoridad Laboral en relación con el registro, depósito y publicidad de las actas de elecciones sindicales y aquellas actividades conexas a los procesos electorales que sean necesarias en el ejercicio de sus competencias. Al Comité, integrado en la propia Oficina Pública, le corresponde, fundamentalmente, controlar y supervisar las elecciones celebradas sobre la base de lo establecido en el Acuerdo Intersindical, así como emitir criterios en aquellas cuestiones relevantes que se le planteen en relación con dichos procesos. Para el control de la idoneidad de las elecciones que se lleven a cabo, el Comité se apoyará en la Inspección, instrumento básico del sistema, quien realizará, al efecto, directamente las inspecciones que se determinen en los centros de trabajo. Igualmente, se publican como Anexos los modelos oficiales de la documentación precisa para llevar a cabo el proceso de elecciones sindicales en esta Comunidad.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación y apro-

2000ko azaroaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*— Xedea, izaera eta araubide juridikoa.

1.— Dekretu honen xedea da enpresetako langileen eta administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordezkari-tza-organoak hautatzeko hauteskundeen arloan honakoak sortzea eta arautzea: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa eta Bulego Publikoaren lurralde bulegoak; bestetik, Sindikatu Hauteskundeetako Batzordea eta Batzordearen lurralde batzordeak eta, hirugarrenik, Ikuskaritza.

2.— Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, lurralde bulegoak, Sindikatu Hauteskundeetako Batzordea, lurralde batzordeak eta Ikuskaritzaren funtzionamenduak eta egiturak dekretu honetan, Sindikatu arteko Akordioan (Akordioa dekretuaren I. eranskinean dago jasota) eta ezargarria den lan arloko araudian xedatutakoa bete beharko du.

*2. artikulua.*— Ezarpen eremua.

Dekretu honek sortu eta arautzen dituen organoen ezarpen eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

II. KAPITULUA  
SINDIKATU HAUTESKUNDEEN BULEGO  
PUBLIKOA

*3. artikulua.*— Atxikipena.

Sindikatu hauteskundeen Bulego Publikoa Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari atxikita egongo da. Bestalde, Bulego Publikoaren lurralde bulegoak Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren lurralde ordezkari-tzen egituretan txertatuko dira.

*4. artikulua.*— Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoaren eginkizunak.

Honako hauek dira Bulego Publikoaren eginkizunak:

a) Eremu funtzional edo lurralde eremu baten edo gehiagoren zati handi batean hauteskundeak egiteko akordioen gaineko komunikazioa jasotzea, akordioak gordailatu eta zabaltzeko, baldin eta akordio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko baten eremua gainditzen badute.

b) Hilero jasotzea lurralde bulegoetan erregistratzen diren hauteskunde aktei buruzko datuak.

bación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de noviembre de 2000,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*— Objeto, naturaleza y régimen jurídico.

1.— Es objeto del presente Decreto la creación y regulación de la Oficina Pública de Elecciones Sindicales de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Oficinas Territoriales, del Comité de Elecciones Sindicales y de sus Comités Territoriales y de la Inspección en materia de elecciones a los órganos de representación de las y de los trabajadores en las empresas y a los órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

2.— El funcionamiento y la estructura de la Oficina Pública de Elecciones Sindicales, de las Oficinas Territoriales, del Comité de Elecciones Sindicales, de los Comités Territoriales y de la Inspección a que se refiere el párrafo anterior se ajustará a lo dispuesto en el presente Decreto, en el Acuerdo Intersindical sobre elecciones sindicales que se acompaña como Anexo I y en la normativa laboral de aplicación.

*Artículo 2.*— Ámbito de actuación.

El ámbito de actuación de los órganos a que se refiere el presente Decreto se corresponde con el del territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

CAPÍTULO II  
DE LA OFICINA PÚBLICA DE ELECCIONES  
SINDICALES

*Artículo 3.*— Adscripción.

La Oficina Pública de Elecciones Sindicales estará integrada en la Dirección de Trabajo y Seguridad Social. Las Oficinas Territoriales se integran en la estructura de sus respectivas Delegaciones Territoriales de Trabajo y Seguridad Social.

*Artículo 4.*— Funciones de la Oficina Pública de Elecciones Sindicales.

Son funciones de la Oficina Pública las siguientes:

a) Recibir la comunicación de los acuerdos para la celebración de elecciones de manera generalizada en uno o varios ámbitos funcionales o territoriales para su depósito y publicidad, cuando dichos acuerdos superen el ámbito de un Territorio Histórico de la Comunidad Autónoma.

b) Recibir mensualmente de las Oficinas Territoriales datos relativos a las actas electorales registradas en dichas Oficinas.

c) Sindikatu bakoitzak lortutako emaitzen gaineko ziurtagiriak eta komunikazioak luzatzea, baldin eta emaitza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bat baino gehiagokoak badira.

d) Lurralde bulegoen funtzionamendua koordinatzea.

e) Sindikatu hauteskundeetako inprimakien eredu ofizialak egitea, editatzea eta banatzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren sindikatu hauteskundearen emaitzak bidaltzea hileroko Estatu Bulego Publikora.

g) Lege edo erregelamendu mailako bestelako edozein arauk esleitzen dizkion eginkizunak.

#### 5. artikulua.— Lurralde bulegoen eginkizunak.

Honako hauek dira lurralde bulego bakoitzak bere ezarpen eremuan dituen eginkizunak:

a) Enpresan edo lantokian hauteskundeak sustatu nahi dituztenen komunikazioa jasotzea.

b) Ereku funtzional edo lurralde eremu baten edo gehiagoren zati handi batean hauteskundeak egiteko akordioaren gaineko komunikazioa jasotzea, akordioak gordailatu eta zabaltzeko. Bestalde, akordioak lurralde bulegoaren lurralde historikoaren eremua gainditzeko badu, Bulego Publikora bidali beharko da akordioaren gaineko komunikazioa.

c) Hauteskunde aktak erregistratzea edo erregistratzeko baimena ukatzea, aldezturik Sindikatu Hauteskundeetako Batzordeak akten gainean egindako ebaluazioa eta haren funtzionamendu araudia kontuan hartuta.

d) Sindikatu bakoitzak lurralde bulegoari dagokion lurralde historikoan lortu dituen emaitzen gaineko ziurtagiriak eta komunikazioak luzatzea.

e) Bulegoari dagokion lurralde historikoan egiten diren sindikatu hauteskundearen emaitzak bidaltzea hileroko Bulego Publikora.

f) Ordezkapenen, baliogabetzeen, dimisioen eta agintaldi bukaeren gaineko komunikazioak jasotzea, eta horiek iragartzea.

g) Lantokiren batean langileen ordezkaritza organoak hautatzeko hauteskundeak egiten badira eta lantokia desagertzen bada, enpresaren legezko ordezkaritzaren komunikazioa jasotzea. Enpresak ez badu legezko ordezkaririk komunikazioa langileen legezko ordezkaritzak edo ordezkaritza sindikalek egingo dute, baldin eta halakorik badago.

h) Lege edo erregelamendu mailako bestelako edozein arauk esleitzen dizkion eginkizunak.

c) Expedir certificaciones y comunicaciones de los resultados obtenidos por las distintas organizaciones sindicales, cuando el ámbito afectado supere el de un Territorio Histórico de la Comunidad Autónoma.

d) Coordinar el funcionamiento de las Oficinas Territoriales.

e) Elaborar, editar y distribuir los modelos oficiales de impresos de elecciones sindicales.

f) Remitir mensualmente a la Oficina Pública del Estado los datos relativos a las elecciones sindicales celebradas en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

g) Cualesquiera otras que se le atribuyan mediante norma de rango legal o reglamentario.

#### Artículo 5.— Funciones de las Oficinas Territoriales.

Son funciones de las Oficinas Territoriales en sus correspondientes ámbitos de actuación:

a) Recibir la comunicación de las y los promotores de su propósito de celebrar elecciones en la empresa o centro de trabajo en el respectivo Territorio Histórico.

b) Recibir la comunicación de los acuerdos para la celebración de elecciones de manera generalizada en uno o varios ámbitos funcionales para su depósito y publicidad, remitiéndolo a la Oficina Pública cuando el ámbito territorial trascienda de su respectivo Territorio Histórico.

c) Registrar o denegar el registro de las actas electorales previa evaluación por parte del Comité de Elecciones Sindicales conforme a sus normas de funcionamiento.

d) Expedir certificaciones y comunicaciones sobre los resultados obtenidos por las organizaciones sindicales en su ámbito territorial.

e) Remitir mensualmente a la Oficina Pública los datos relativos a las elecciones sindicales celebradas en el ámbito de su Territorio Histórico.

f) Recibir la comunicación de las sustituciones, revocaciones, dimisiones y extinciones de mandato, dando la debida publicidad a las mismas.

g) Recibir la comunicación de la representación legal de la empresa o, en su defecto, de la representación legal de las y los trabajadores o las y los Delegados sindicales, si los hubiera, cuando se produzca la desaparición de cualquier centro de trabajo en que se hubieran celebrado elecciones a los órganos de representación de las y los trabajadores.

h) Cualesquiera otras que se le atribuyan mediante norma de rango legal o reglamentario.

III. KAPITULUA  
SINDIKATU HAUTESKUNDEEN BULEGO  
PUBLIKOKO SINDIKATU HAUTESKUNDEETAKO  
BATZORDEA

**6. artikulua.**— Izaera.

1.— Sindikatu Hauteskundeetako Batzordea Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoan txertatuta dago, eta honakoak dira legediak agintzen dion eginkizunak: Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren sindikatu hauteskundeak kontrolatzea eta gainbegiratzea. Zeregin horretarako, sindikatu hauteskundeen gaineko Sindikatu arteko Akordioan ezarritakoa hartu beharko du kontuan.

2.— Sindikatu Hauteskundeetako Batzordeak lurralde batzorde bat izango du lurralde bulego bakoitzean.

3.— Sindikatu Hauteskundeetako Batzordeak berak erabakiko ditu barne funtzionamendurako arauak. Horretarako, sindikatu hauteskundeen gaineko Sindikatu arteko Akordioan ezarritakoa hartu beharko du kontuan.

**7. artikulua.**— Sindikatu Hauteskundeetako Batzordearen eginkizunak.

Honako hauek dira Sindikatu Hauteskundeetako Batzordearen eginkizunak:

a) Hauteskunde aktak erregistratu aurretik, akten gaineko gora-behera guztiak ebaluatzea. Horretarako, Batzordearen beraren funtzionamendu arauak hartuko dira kontuan. Funtzionamendu arauak sindikatu hauteskundeen gaineko Sindikatu arteko Akordioan daude jasota.

b) Aholkularitza ematea Bulego Publikoari hauteskunde prozesuen gainean egon daitezkeen arazoak dirrela-eta.

c) Hauteskunde prozesuetan zehar egon daitezkeen inpu gnazioak erabakiko dituzten arbitroak aukeratzea.

d) Hauteskundeen emaitzak ixtea hilero. Horretarako, Batzordearen beraren funtzionamendu arauak hartuko dituzte kontuan, bai eta sindikatu hauteskundeen gaineko Sindikatu arteko Akordia ere.

e) Bulego Publikoak agintzen dizkion bestelako eginkizun guztiak, baldin eta Sindikatu Hauteskundeen Batzordeak onartzen baditu.

**8. artikulua.**— Batzordeen osaketa eta erabakiak hartzeko era.

1.— Sindikatu Hauteskundeen Batzordea honako hauek osatuko dute: batetik, lehendakariak egongo da. Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuordea izango da lehendakaria. Beste aldetik, lehendakariordea egongo da. Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria izango da lehendakariordea. Azkenik, beste zortzi lagun egongo dira sindikatuak ordezkatzeko. Zortzi kide horiek hautatzeko, kontuan hartuko da sindikatu bakoitzak lortu duen

CAPÍTULO III  
DEL COMITÉ DE ELECCIONES SINDICALES DE LA  
OFICINA PÚBLICA DE ELECCIONES SINDICALES

**Artículo 6.**— Naturaleza.

1.— El Comité de Elecciones Sindicales integrado en la Oficina Pública de Elecciones Sindicales para el ejercicio de las funciones encomendadas a ésta por el ordenamiento jurídico, controlará y supervisará las elecciones sindicales celebradas en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi conforme a lo establecido en el Acuerdo Intersindical sobre elecciones sindicales.

2.— En cada una de las Oficinas Territoriales existirá un Comité Territorial del Comité de Elecciones Sindicales.

3.— Las normas de funcionamiento interno serán acordadas por el propio Comité de Elecciones Sindicales, conforme al Acuerdo Intersindical sobre elecciones sindicales.

**Artículo 7.**— Funciones del Comité de Elecciones Sindicales.

El Comité de Elecciones Sindicales ejercerá las funciones siguientes:

a) Evaluar conforme a las normas de funcionamiento del propio Comité recogidas en el Acuerdo Intersindical sobre elecciones sindicales todo lo referente a las actas electorales previo al registro de las mismas.

b) Asesorar a la Oficina Pública sobre aquellas cuestiones que se planteen en relación con los procesos electorales.

c) Elegir las personas que ejerzan de árbitros para resolver las impugnaciones realizadas en relación con el proceso electoral.

d) Cerrar mensualmente los resultados electorales de acuerdo con las normas de funcionamiento del propio Comité, conforme al Acuerdo Intersindical en materia de Elecciones Sindicales.

e) Cualesquiera otras que le sean atribuidas por la Oficina Pública y sean aceptadas por el Comité de Elecciones Sindicales.

**Artículo 8.**— Composición y forma de adopción de Acuerdos.

1.— El Comité de Elecciones Sindicales estará compuesto por una Presidencia, que la ostentará la o el Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social, una Vicepresidencia, que la ostentará la o el Director de Trabajo y Seguridad Social, y ocho personas representantes de las centrales sindicales en proporción a la representatividad obtenida en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi en las elecciones a los órganos de repre-

batez besteko ordezkariak enpresetako langileen eta administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordezkariak-organak hautatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan egin ohi diren hauteskundeetan.

2.- Lurralde batzordeetako lehendakaria Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde bulegoetako ordezkariak izango dira. Bestalde, lurralde batzordeak osatzeko eta batzordeetan erabakiak hartzeko, Sindikatu Hauteskundeetako Batzordearentzako ezarri diren jarraibideak bete behar dira.

3.- Sindikatu hauteskundeetako batzordeetan erabakiak hartzeko, sindikatu gehienek agertu behar dute aldeko iritzia, beti ere sindikatu bakoitzak duen ordezkariak maila kontua hartuta.

4.- Sindikatu Hauteskundeetan dauden sindikatuek aukera dute artikuluko honetan ezarri diren batzordeen osaketa eta erabakiak hartzeko era aldatzeko, beti ere beti ere sindikatu hauteskundeetako Sindikatu arteko Akordioan ezarritakoa kontuan hartuta.

5.- Sindikatu Hauteskundeetako Batzordean dagoen sindikaturen batek erabakitzen bada aurreko paragrafoan adierazitako aukera erabiltzea, eta, horren ondorioz, batzordearen osaketa eta erabakiak hartzeko era aldatzen bada, baina geroago sindikatu berak Sindikatu arteko Akordioari uko egiten badiu, sindikatu horrek berriro izango du ezinbestean eta ondorio guztietarako, artikuluko honetako 1 eta 3 paragrafoetan ezarritakoaren arabera berez dagokion ordezkariak.

6.- Sindikatu hauteskundeetako batzordeen idazkarietako eginkizunak Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaritza bakoitzeko edo Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde ordezkariak bakoitzeko teknikari mailako pertsona batek bete behar ditu.

**9. artikulua.**- Sindikatu Hauteskundeetako Batzordearen batzarrak.

1.- Sindikatu Hauteskundeetako Batzordeak urtean behin bilduko da, urte naturalaren hasieran. Era berean, lau urtean behin egin ohi diren hauteskunde-aldien hasiera eta bukaeran ere bilduko da. Hauteskunde-aldiak hitzartuak izan ohi dira. Batzar horiek guztiak ohiko batzarrak izango dira.

2.- Lurralde batzordeak astean behin bilduko dira hauteskundeak egiteko hitzartutako hauteskunde-aldietan. Hauteskunde-aldiak ez badira, hilean behin bilduko dira. Batzar horiek guztiak ohiko batzarrak izango dira.

3.- Hala era, edozein unetan egin ahal izango dira ezohiko batzarrak. Horretarako, nahikoa izango da batzordekide batek batzarra egiteko eskatzea, batzar hori egin baino aste bete lehenago gutxienez.

sentación de las y los trabajadores en las empresas y a los órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

2.- Los Comités Territoriales, que estarán presididos por la o el Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, se ajustarán en su composición y en la forma de adopción de acuerdos a lo dispuesto para el Comité de Elecciones Sindicales.

3.- En los Comités de Elecciones Sindicales los acuerdos se adoptarán por mayoría de las organizaciones sindicales de acuerdo con la representatividad acreditada.

4.- La composición y forma de adopción de acuerdos establecidas en el presente artículo podrán disponerse por las organizaciones sindicales con presencia en el Comité de Elecciones Sindicales, en lo que a ellas respecta, en función del Acuerdo Intersindical de elecciones sindicales.

5.- Si las organizaciones sindicales presentes en los Comités de Elecciones Sindicales, haciendo uso de lo establecido en el párrafo anterior, modifican la composición y forma de adopción de acuerdos antes establecidos y, con posterioridad, alguna de esas organizaciones sindicales dejara de participar en el Acuerdo Intersindical, la misma volverá a ostentar, a todos los efectos, la representación que le corresponde según lo establecido en los párrafos 1 y 3 de este artículo.

6.- Las funciones de secretaría de los Comités de Elecciones Sindicales corresponderán a una persona de nivel técnico de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social o de la Delegación Territorial de Trabajo y Seguridad Social correspondiente.

**Artículo 9.-** Reuniones del Comité de Elecciones Sindicales.

1.- El Comité de Elecciones Sindicales se reunirá con carácter ordinario una vez al comienzo de cada año natural. Con la misma consideración se reunirá al inicio y finalización de los periodos concentrados de elecciones de periodicidad cuatrienal.

2.- Los Comités Territoriales se reunirán con carácter ordinario una vez por semana durante el periodo concentrado de elecciones, pasando a reunirse con una periodicidad mensual fuera del citado periodo.

3.- En cualquier momento, y con carácter extraordinario, podrán celebrarse reuniones a petición de cualquiera de sus miembros con una antelación mínima de una semana a la fecha de convocatoria.

IV. KAPITULUA  
SINDIKATU HAUTESKUNDEEN IKUSKAPENA

**10. artikulua.**— Sindikatu hauteskundeetako ikuskaritza.

1.— Sindikatu Hauteskundeetako Ikuskaritza sortzen da sindikatu hauteskunderen ahalik eta sinesgarritasunik handiena emateko xedez eta Sindikatu arteko Akordioa kontuan hartuta.

2.— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak izendatuko ditu sindikatu hauteskundeetan ikuskaritza zereginez arduratuko diren langileak. Horretarako, alde aurretik Sindikatu Hauteskundeetako Batzordea ados agertu behar da.

**11. artikulua.**— Jarduerak.

1.— Sindikatu Hauteskunderen Ikuskaritzak, sindikatu hauteskundeetarako Sindikatu arteko Akordioan ezarritakoa kontuan hartuta, beteko ditu bere eginkizunak.

2.— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak izendatutako ikuskariak Sailak berak luzatutako identifikazio-agiria izango dute enpresetan aurkezteko eta haien eginkizunak behar bezala burutzeko lagungarria izango da. Agiriaren eredia dekretuaren II. eranskinean dago jasota.

3.— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak izendatu dituen ikuskariak txosten bat bete beharko dute, eta bertan haien eginkizunen emaitzen berri emango dute. Txostenaren eredia dekretuaren III. eranskinean dago jasota. Txostena lurralde batzordera bidali beharko dute.

**12. artikulua.**— Osaketa.

1.— Ikuskaritza eginkizunetarako hiru talde osatuko dira Bizkaian, bi Gipuzkoan eta bat Araban. Talde horiek handitu egin ahal izango dira hauteskundealdietan, baldin eta alde aurretik halakorik erabakitzen badu Sindikatuen Hauteskundeetarako Batzordeak.

2.— Ikuskaritza talde bakoitza honako hauek osatuko dute: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak sailako funtzionarioen artean izendatutako ikuskari batek eta Sindikatu Hauteskunderen Batzordean dauden sindikatu bakoitzak izendatutako beste hainbeste kide.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**— Baliabide materialak.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, bere aurrekontuen pentzutari, dekretu honetan adierazitako organoetara dagozkien giza-baliabideak, materialak eta ekonomikoak bermatuko ditu, euren funtzioak egoki bete ditzaten.

**Bigarrena.**— Sindikatuentzako diru-laguntzak

1.— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak diru-laguntzak emango dizkie Sindikatu Hauteskunderen

CAPÍTULO IV  
DE LA INSPECCIÓN DE ELECCIONES SINDICALES

**Artículo 10.**— La Inspección de Elecciones Sindicales.

1.— Con objeto de garantizar la máxima fiabilidad en el proceso de elecciones sindicales, y conforme al Acuerdo Intersindical sobre elecciones sindicales, se establece la Inspección de Elecciones Sindicales.

2.— El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social designará, previo acuerdo en el seno del Comité de Elecciones Sindicales, el personal funcionario necesario para la realización de las funciones de inspección de las elecciones sindicales.

**Artículo 11.**— Actuaciones.

1.— La Inspección de Elecciones Sindicales ejercerá sus funciones conforme a lo previsto en el Acuerdo Intersindical sobre elecciones sindicales.

2.— Para el ejercicio de sus funciones se facilitará al inspector o a la inspectora designada por el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social un documento identificativo ante las empresas. Este documento se contiene en el Anexo II de este Decreto.

3.— Del resultado de sus actuaciones, las y los Inspectores nombrados por el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social extenderán un informe, según modelo contenido en el Anexo III, que habrá de ser elevado al respectivo Comité Territorial.

**Artículo 12.**— Composición.

1.— La Inspección se llevará a cabo por tres equipos en Bizkaia, dos en Gipuzkoa y uno en Araba, que podrán ser reforzados durante el periodo concentrado previo acuerdo del Comité de Elecciones Sindicales.

2.— Cada equipo de Inspección estará compuesto por una o un inspector nombrado por el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social de entre su personal funcionario y una persona designada por cada una de las centrales sindicales miembros del Comité de Elecciones Sindicales.

DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**— Recursos materiales.

El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, con cargo a sus dotaciones presupuestarias, garantizará los medios personales, materiales y económicos necesarios para la ejecución de las funciones encomendadas a los distintos órganos a los que hace referencia el presente Decreto.

**Segunda.**— Subvenciones a las Centrales Sindicales.

1.— El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social subvencionará, con cargo a sus dotaciones

tako Batzordean eta lurralde batzordeetan parte hartzen duten sindikatuei, bai eta dekretu honetan araututako ikuskaritza-erregimenean parte hartzen duten sindikatuei ere. Dirulaguntzak Sailaren aurrekontuko diru-dotaziotik emango ditu.

2.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak ofizioz hasiko du dirulaguntzak emateko prozesua, urtero emango duen agindu baten bidez. Prozesu hori bukatzeko ohiko prozedura erabili ahal izango da, hau da, administrazioaren eta interesatuen arteko akordioa, hain zuzen. Ondorio horietarako, sindikatu hauteskudeetako batzordeetako partaide diren sindikatuek batetik eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak bestetik —azken hori baita prozedura kudeatzeko eskumena duen organoa—, aukera izango dute dirulaguntzaren zenbatekoari buruzko erabaki bat proposatzeko, beti ere ebazpen-proposamena egin baino lehen. Administrazioa eta lehen esan ditugun sindikatuak ados badaude dirulaguntzaren zenbatekoari buruzko proposamenarekin, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuari bidaliko zaizkio proposamena eta gainontzekoak, hark ebazpena egin dezan. Akordioa izenpetu ondoren, prozeduraren ebazpenak izan ohi dituen ondorio berak izango ditu akordioak.

3.– Edozelan ere, sindikatu bakoitzari emango zaion zenbatekoa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den agindu batean jasoko da, eta banatuko den zenbateko osoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan dago jasota. Bestalde, agindu horretan ezarriko dira dirulaguntza jaso eta zuzitzeko aurkeztu behar diren agiriak. Zenbatekoa banatzeko aukera bi daude: sindikatu bakoitzari kopuru bera ematea edo sindikatu bakoitzak duen ordezkariaren arabera banatzea. Ordezkaritza, beti ere, enpresetako langileen eta administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordezkari-organok hautatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hauteskundeetan lortutakoa izango da.

4.– Dirulaguntzaren aldeko agindua eman ostean eta dirulaguntza jasotzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ostean ordainduko da dirulaguntza. Bestalde, dirulaguntzaren zenbatekoa ordainketa bakar batean emango da.

5.– Dirulaguntza hauek bateragarriak izan daitezke sindikatuek jaso ditzaketan bestelako dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta xedapen honetan araututako laguntzek duten xede eta helburu bera ez badute.

**Hirugarrena.**– Arbitroentzako ordainsariak.

1.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak ordainsariak emango dizkie Langileen Estatutuko 76. artikuluan eta sindikatu hauteskudeen arloan ezargarria den gainontzeko araudian ezarritako arbitraje-prozedurak burutzeko izendatzen diren arbitroei, kontuan izanik arbitroek Euskal Autonomia Erkidegoan jardun be-

presupuestarias, a las centrales sindicales integrantes del Comité de Elecciones Sindicales y de los Comités Territoriales, así como por la participación en el régimen de inspecciones establecido en este Decreto.

2.– El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, con carácter anual mediante Orden, iniciará de oficio el procedimiento de concesión, el cual se podrá finalizar mediante el procedimiento convencional con acuerdo entre la Administración y los interesados. A dichos efectos, las Centrales Sindicales integrantes de los Comités de Elecciones Sindicales y la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, órgano competente para la gestión del procedimiento, podrán, en cualquier momento anterior a la propuesta de resolución, proponer un acuerdo referido a la cuantía de la subvención. Si la propuesta mereciere la conformidad tanto de la Administración como de las Centrales Sindicales citadas, se remitirá, con todo lo actuado, al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, quien resolverá. Formalizado, en su caso, el acuerdo, éste producirá iguales efectos que la resolución del procedimiento.

3.– En todo caso, mediante Orden que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco en la que se establecerá la documentación a presentar para el pago y justificación de la subvención, se distribuirá el importe previsto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi entre las centrales sindicales citadas en el párrafo anterior. El importe podrá distribuirse a partes iguales entre las centrales sindicales o en proporción a la representatividad obtenida en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi en las elecciones a los órganos de representación de los trabajadores y personal al servicio de las Administraciones Públicas, conforme a lo que se determine en la Orden de concesión y en función de la existencia o no de acuerdo previo con las Centrales Sindicales.

4.– El pago de la subvención se realizará de una sola vez tras la Orden de concesión y previa presentación de la documentación prevista al efecto.

5.– Las ayudas serán compatibles con otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos que puedan percibir las Centrales Sindicales, siempre y cuando no tengan la misma finalidad y objeto de las reguladas en la presente disposición.

**Tercera.**– Compensaciones económicas para las y los árbitros.

1.– El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social con cargo a las dotaciones presupuestarias previstas a este fin, compensará económicamente las actuaciones, dentro del ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de las y los árbitros designados para realizar los procedimientos arbitrales previstos en el ar-



har dutela. Bestalde, ordainsariak ordaintzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak zeregin horretarako izendatuta duen aurrekontu dotazioa joko da.

2.- Ordainsariaren zenbatekoa Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak erabakiko du. 25.000 PTA (150, 25 euro) ordainduko da arbitraje-epai bakoitzeko eta zenbatekoa lauhileko bakoitza bukatzean likidatuko da. Gainera, arbitro bakoitzak ezin izango du jasotako 1.000.000 PTA (6.010,10 euro) baino gehiago, nahiz eta kopuru hori gainditzeko adina epai eman epealdi bakoitzean.

**Laugarrena.**— Hauteskundeetarako eredu ofizialak.

Enpresetako langileen eta administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen ordezkari-tza-organoko hautatzeko hauteskundeetan erabiliko diren eredu ofizialak onartzen dira. Ereduak dekretu honen IV. eranskinean daude jasota. Eredu horiek derrigorrean erabili beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren sindikatu hauteskunde-prozesu guztietan.

#### XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Sindikatu Hauteskundearen prozesua arautzen duen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 1998ko urriaren 21eko Aginduak indarrean iraungo du harik eta arbitroak eta ikuskariak hautatzeko, izendatzeko eta kargutik kentzeko prozedura berriarekin ordezkatu arte.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Berariaz indargetzen da honako dekretua: enpresetan ari diren langileak ordezkatzeko organoen eta administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak ordezkatzeko organoen hauteskundeetarako Erregistro, Gordailu eta Zabalkunderako Bulego Publikoaren Bartzorde Aholkuemalea sortzeari buruzkoa irailaren 13ko 355/1994 Dekretua.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**— Arauzko garapena.

Ahalmena ematen zaio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuari, dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren beste xedapen emateko.

**Bigarrena.**— Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko azaroaren 28an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

título 76 del Estatuto de los Trabajadores y demás normativa aplicable en materia de elecciones sindicales.

2.- La cuantía de la compensación económica será fijada por el Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, estableciéndose en 25.000 PTA, (150,25 Euros), a tanto alzado por Laudo arbitral y liquidada por cuatrimestres vencidos, sin que la percepción total por árbitro pueda rebasar 1.000.000 PTA, (6.010,10 Euros.), con independencia del número de Laudos que haya dictado en el periodo de vigencia.

**Cuarta.**— Modelos oficiales de elecciones.

Se aprueban los modelos oficiales de elecciones a órganos de representación de las y los trabajadores en la empresa y a los órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones Públicas, según Anexo IV. Estos modelos serán de obligada utilización en los procesos electorales celebrados en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

La Orden de 21 de octubre de 1998, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, por la que se regula el proceso de Elecciones Sindicales, permanecerá vigente hasta su sustitución en lo referido al procedimiento de selección, nombramiento y remoción de árbitros e inspectores.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Queda derogado expresamente el Decreto 355/1994, de 13 de septiembre, sobre creación del Comité Asesor de la Oficina Pública de Registro, Depósito y Publicidad para las elecciones a los órganos de representación de los trabajadores en las empresas y a los órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones Públicas, y cuantas normas de igual o inferior rango se opongan al presente Decreto.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

**Segunda.**— Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2000.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## I. ERANSKINA

SINDIKATU HAUTESKUNDEEI BURUZKO  
AKORDIOA

1999an berregindako testua

## HITZAURREA

Akordio hau izenpetzen duten sindikatu-konfederazioek uste osoa dute, langileen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeek, oroz gain, sindikatu-mugimendu osoa indartzeko balio izan behar dutela. Hauteskundeetara aurkezten diren sindikatu-aukeren arteko lehia logikoaren gainera, bada, sindikatu guztiak elkarrekin egindako ahalegina izan behar da nagusi, hauteskundeek ahalik eta gardentasun- eta fidagarritasun-bermerik handiena izan dezaten.

Sindikatu-konfederazio izenpetzaileen ustez, gardentasun eta fidagarritasun horiek bermatuko dituzten ikuskatze eta kontrola egitea, nagusiki sindikatuen lana izan behar da. Ondorioz, oso komenigarri deritzote helburu hori izango duen sindikatu arteko akordio bat egiteari. Orobat, beharrezko da sektore pribatuan eta administrazio publikoetan egindako hauteskundeak ikuskatze eta kontrola elkarrekin egitea, aplikagarri den arauan hauteskunde-prozedura ezartzearen kaltetan gabeko.

Horregatik guztiagatik, sindikatu-konfederazio izenpetzaileek, sindikatu-hauteskundeak segimendua eta kontrola egiteko eta hauteskundeetako emaitzak baliozkotzeko prozedurari buruzko akordio hau sinatu dute, eta akordioa Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari helarazi diote.

**1. artikulua.**— Segimendu eta Kontrol Batzorde Nagusia.

1.— Sindikatu-hauteskundeak segimendua eta kontrola egiteko Segimendu eta Kontrol Batzorde Nagusia eratuko da. Sindikatu izenpetzaile bakoitzak izendatutako bi pertsonak eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak izendatutako bi ordezkari osatuko dute delako batzordea.

2.— Batzorde Nagusiaren eginkizun izango dira, batetik, sindikatu-hauteskundeak segimendua eta kontrola egiteko eta hauteskunde-aktak baliozkotzeko lanak koordinatzea; eta, bestetik, horiei guztiei buruz egoki deritzen akordioak (besteak beste, 12. artikuluan adierazitakoak) hartzea.

**2. artikulua.**— Lurraldeko segimendu eta kontrol batzordeak.

1.— Lurralde historiko bakoitzean, sindikatu-hauteskundeetarako Lurraldeko Segimendu eta Kontrol Batzorde bat eratuko da. Batzorde Nagusirako adierazitako osiera bera izango du.

2.— Lurraldeko Batzordearen eginkizun izango dira, batetik, bere lurraldean, bai sektore publikoan, bai pri-

## ANEXO I

## ACUERDO SOBRE ELECCIONES SINDICALES

Texto refundido en 1999

## PREAMBULO

Las Confederaciones Sindicales firmantes manifiestan su convicción de que las elecciones a representantes de las y los trabajadores deben servir ante todo para fortalecer al conjunto del movimiento sindical. Más allá, por tanto, de la competitividad lógica entre las opciones sindicales concurrentes, debe prevalecer el común esfuerzo sindical para que las elecciones ofrezcan la máxima garantía de transparencia y fiabilidad.

Las Confederaciones Sindicales firmantes consideran, que la supervisión y control de las elecciones que garantiza aquella transparencia y fiabilidad es tarea que debe corresponder prioritariamente a los sindicatos, estimando en consecuencia muy conveniente un acuerdo sindical que persiga tal objeto. Asimismo, es necesario que la supervisión y control de los resultados de las elecciones celebradas en el sector privado y en las administraciones públicas se realice de forma conjunta, sin perjuicio de que el procedimiento electoral sea establecido en la norma aplicable.

Por todo ello, las Confederaciones Sindicales firmantes suscriben el presente acuerdo sobre procedimiento de seguimiento y control de las elecciones sindicales y convalidación de sus resultados, dando traslado del mismo al Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

**Artículo 1.**— Comisión Central de Seguimiento y Control.

1.— Se constituirá una Comisión Central de Seguimiento y Control de las elecciones sindicales. Estará compuesta por dos personas designadas por cada sindicato firmante y dos en representación del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco nombradas por el mismo.

2.— Serán funciones de la Comisión Central la coordinación de las tareas de seguimiento y control de las elecciones sindicales y convalidación de las actas electorales, así como la adopción de los acuerdos que con relación a todas ellas se juzguen necesarios, entre otros los contemplados en el artículo 12.º.

**Artículo 2.**— Comisiones Territoriales de Seguimiento y Control.

1.— En cada Territorio Histórico se constituirá una Comisión Territorial de Seguimiento y Control de las elecciones sindicales. Su composición se ajustará a lo señalado para la Comisión Central.

2.— Serán funciones de la Comisión Territorial el seguimiento y control de las elecciones celebradas en su

batuan egindako sindikatu-hauteskundeen segimendua eta kontrola egitea; eta, bestetik, hauteskunde-aktak baliozkotzea. Baliozkotzen ez diren aktak ez dira kontuan hartuko ezertarako ere.

### 3. *artikulua*.– Akordioak hartzea.

Sindikatuak izendatutako pertsonak baizik ez dute izango botoa segimendu- eta kontrol-batzordeetan. Akordioak aho batez hartuko dira. Halakorik lortzen ez bada, arbitro-lanak egingo dituen pertsona baten esku utziko da gaia, hark behin-betikoko erabakia hartuz, Akordio honetako 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

### 4. *artikulua*.– Eragitea eta aurreabisua.

#### 1.– Hauteskundeak eragitea:

Hauteskundeak eragiteko legezko ahalmena izango dute sindikatuak eta langileak, legean ezartzen diren baldintzei jarraituz.

#### 2.– Agintaldia bukatu delako hauteskundeak eragitea:

1.– Agintaldia bukatu dela-eta ordezkariak berritze-ko hauteskundeak eragiten direnean, agintaldia burutzeko hiru hilabete falta diren egunetik aurrera baizik ez dira eragin ahal izango.

Hauteskunde-prozesua egun horren aurretik hasia erabaki ahal izango da, baldin –eta bakarrik baldin– bi agintaldi gainezartzen ez badira. Aurreko batzordekideen agintaldia indarrean den bitartean, ez dago ordezkari-talde berria hautatzerik.

Hori dagokionez, lau urte bete arte agintaldia indarrean dela ulertuko da, baldin aurreabisua aurkezteko egunean Bulego Publikoan jasota ez badago beste-lako kausengatik agintaldia iraungi dela.

2.– Orobat, hauteskundeak aurreabisua egin ahal izango da ondorengo egoera hauetakoren bat gertatzen den unetik aurrera:

a) Ordezkari batek kargua uztea, eta kargu-uzte hori Bulego Publikoan erregistratuta izatea.

b) Sindikatu batek Bulego Publikoari jakinaraztea sindikatu horretako ordezkari batek enpresa utzi duela.

c) Sindikatu batek Bulego Publikoari jakinaraztea beste sindikatu bateko ordezkari batek enpresa utzi duela, eta Sindikatu Hauteskundeak Lurralde Batzordearen erabakiz hori horrela dela baietsita egotea.

#### 3.– Sei eta hamar langile bitarteko enpresak edo lantokiak:

Sei eta hamar langile bitarteko enpresetan, hauteskundeak egiteko, ez da beharrezko izango alde aurretik biltzar orokorrean erabakia hartzea.

#### 4.– Lurralde berean hainbat lantoki dituzten enpresak:

1.– Lantoki bat baino gehiago dituen enpresa, baina guztien artean berrogeita hamar langile baino gehiago izan gabe:

